

## mo-no

**monokromia:** Kolorazio kolorebakarra da, kolorazio anitzarekin (= polikromiarekin) kontrajarriz ulertzen dena. Kolore monokromo batekin egindako pintura modulatioa prozedura konfiguratio bat da, *colour painting* izeneko korrante estilistikoak sarritan eta nagusiki erabiltzen zuena. (Yves Kleinen koadroak urdin monokromoan).

**naïf pintura:** Aldi estilistiko desberdinetan pinturak izan duen garapenaren ondoan *naïf* artisten jardun sortzailea aurkitzen da, disziplina akademikoaren eraginetik bezala tradizioaren eta egungo arte-munduko gertaeren eraginetatik ere libre ibiltzen diren artistena. Errepresentazio plastiko eta errealtate gaiza bera izaten dira horien koadroetan. Horrekin bibentziaren identitate indibidualaren demonstrazio ilustratzaile bat sortzen dute —pintura-prozesuaren barruan—, umeen munduan eta herri primitiboetan gertatzen denaren antzera; "izakiaren" eta bere irudiaren artean bereizketarik egiten ez duen espontanitate inkontzientea.

**neodada:** Jarduera neodadaisten bururape-nak berak, ikuspegi demonstratzaile edo probokatzaile baten bitartez egindako kontzientziaren entrenamendu-modu bezala hartuz, dadaismoaren mugimendu askatzailean dauka bere oinarria, honek erreskatatu baitzuen artea bere sukaldaritzara araudizko marfilezko dorretik, eta garai hari buruzko kritika sozialaren problematikaren kontzientziaztebidetik eraman zuen. Guzti honengatik, arte plastikoaren orientazio metodiko berria, psikologia eta soziologiarekin lotutakoa, eta berebat teknika modernoa eta baliabideen ikerketa aprobetxatu nahian egindako hedapen disziplinarrekoa, funtsezko presuposituak dira praxi artistikoa giza kontzientzian eta gizartearen gaurko egitura modernoan komunikazio-faltan dagoen portaera sozial baten problematikan kontzentratzeko. Arte dadaista oren funtsezko maxima da gauza erreal orok, eta beraz, kontzientzia argitzen duen guztiak, bere balioa baduela jakitea. Gauza arruntak, ohiki erabiltzen diren guztiak, eguneroko bizitzako prozesu desberdinak bezain nabarmengarri egiten dira.

Berrogeita hamarreko urteetako mugimendu neodadaistarekin ekitza-arteak berrorientazio transzendentala experimentatu zuen *happening* eta *fluxus* delakoaren bidez, eta baldintza garrantzitsuak ezarri zituen artearen eta bizitzako

errealitatearen arteko hurbilketa bat egiteko. Aldi berean behartu egin ziren jenero artistikoen arteko mugak, hainbat baliabide-kombinazio eginez; errepresentatzeko modu berriak objektuala, *environment*, pintura materikoa eta metaketa, eta horiekin kontsumoko industriaren baitakoa den objektu aurrefabrikatua integratzen da arte-obraen barruan. Arteak lortzen du honela, kontzientziaren galgara jarritako gauzen "errealizazio" bat egitea, egunero erabiltzen diren gauzei adiera berri bat eranstean dielako, beren aplikazio kontsumistan ukatzen zaiena, eta konfigurazio artistikoan bakarrik egingarri izan daitekeena.

**neopresionismoa:** Seurat eta Signac-ek 1884ean Artista independenteen elkartea (*Société des artistes indépendants*) sortu zutenean, pintura frantsesaren baitan neopresionismoaren korrante estilistikoa eratu zen, eta berarekin gauzatu zen aldaketazko prozesu funtsezko bat, alegia artea errealtatearen irudimenezko erreproduktzio bezala ulertzeik bere erregela propioak eta bere errealtate propioa izango zituen sormenezko jarduera espezifiko batera aldatzera zihoan prozesua. Neopresionismoaren ordezkaririk nagusien artean aurkitzen dira Cézanne, Seurat eta Signac, eta berebat, muga batzuen barruan, Van Gogh eta Gauguin ere. Artzintza ulertzeko era berria izan zen neopresionisten ezaugarria beren aurreko impresionistekin izan zituzten gorabeheretan. Hau bereziki nabarmen azaltzen da Paul Cézannerengan, bere pinturan oraindik ere aurkitzen baita ikuspen garbiaren poetika impresionista, baina aldi berean lanketa-sistema egituratu bat antzematen zaio kolorearen erabilera formatibo bat egiten duen neurrian. Cézannerengan espazioaren eta kolorearen arteko zatiketa baten bidez eratzen da objektuaren forma.

Sakonerako perspektiba ezabatuz lortzen du Cézannek ilusioaren alderdia kentzea, hala lortzen baitu gauzak espazio-sentsazio normaletik aldentzea eta beren baitan, estatua gisa, agerraraztea. Errepresentatutako objektuen eta irudien bolumenari ere murrizketa-prozesu bat ezartzen zaio, materialen gorpuztasuna oinarrizko elementu geometrikoetan deskonposatzen delarik, esfera, kono eta zilindroetan, hauek beren aldetik berriro konbinatu daitezkeelarik gorputz-forma desberdinetan. Elementarizazio honekin egin zituen

Cézannek espresio-metodo objektibagarri berriak pinturan, ondoren etorri zen kubismoak borobildu zituenak.

Seurat eta bere diszipulu Signac beste bide batetik joan ziren kolorearen teknika impresionistaren objektibizazioaren bila. Pintzeladaren teknika impresionista razionalizatu zuten, puntillismoaz baliatuz: honek atomizatu egiten du impresionisten pintura kolorista, sare tankerako kolore-puntuaren sistema zehazki kontrolatu batekin ukitu arinak emanez (dibisionismoa). Kolore-elementu hauen zatiketa estrukturalaren bitartez, eredu sistematikoak eratzen dituzte, denboraz kanpo objektibatutako koadroaren eraikuntza monumental bat sortzen dutenak. Seurat-ek kategoria-eskema baten arabera laburtzen ditu bere kolorearen azterketa metodikoak, eta jarduteko modu psikologikoki dibertenteen gain oinarrituz, bereizi egiten ditu argizko kolore, kolore lokal eta kolore osagarriak; bereizketa horri, koloreen teoria zientifiko bezala hartuta, kromo-luminarismoa esaten zaio.

Zentzu honetan, impresionismo berankorra tradizioaletik modernotasunera doan trantsizio-fase bat bezala azaltzen zaigu, metodo bihurtzen baitu kolorearen teknika impresionista, Niaren eta Naturaren arteko sintesiaren sentimentalismoa ilusionismo bat dela agerian jarritz. Neopresionistenta, prozesu piktorikoak berak osatzen du, lehenengo aldiz, bere kategoria baldintzatzaile eta kolore eta espazioaren azterketarekin, artzintzaren gaimotiborik funtsezkoena.

**neoplastizismoa:** Forma geometriko-konstruktibisten sistema baten teoriari aplikatzen zaion deitura da, Piet Mondrianek *De Stijl* mugimenduaren barruan garatu zuena. Honen bitartez arkitekturara eta espazioaren konfiguraziora lekualdatzen da proportzio elementalen sinpletasun zurruna, Mondrianek bere pinturan bururatutako moduan ikusita. Neoplastizismoak lerrodera murriztu egiten du horizontal, bertikal eta angelu zuzenetara, eta kromatismoa kolore gorri, hori eta urdin primarioetara, eta kolore beltz, gris eta zurira. Neoplastizismoa ordena autonomo kolektiboki baliozko baten ideian oinarritzen da funtsean, ordena horrek "normalizazioaren, eraikuntzaren eta funtzionaltasunaren" ikuspegi garbia jasotzen du, eta arbitrariotasun eta plangintzagabezia oro alde batera uzten ditu. (Ikus berebat *De Stijl*).

**noventa:** 1922. urtean, futurismoaren espirtu progresista-optimistaren kontrako erreakzio bezala, kontrakorrante bat sortu zen Italian, *Novocento*-a, berriz ere tradizioa itzultzeko asmoa errepresentatzen zuena. *Novocento*-aren programa artistikoa korrante modernoaren (futurismo, kubismoaren) kontrako jarrera hartzeagatik bereizi izan zen bereziki, eta balore nazionalak eta arte klasiko italiakoaren printzipio hezitzaileak ezarri nahi izan zituen berriro. Faszismoak sustatu zuen *Novocento* mugimendua. ■